

Ezpalak

JON TORNER

ARGIA.COM-ek Buber Saria irabazi du



GORKA JAKOBE PALAZIO

EUSKARAREN SUSTAPENAREN arloko webgunerik onenaren Buber Saria irabazi du ARGIA.COM-ek. Xabier Letona ARGIAko zuzendaria jaso zuen saria Bilboko Guggenheim museoan, Izaskun Bilbao Eusko

Legebiltzarreko lehendakariaren eskutik (argazkian). Bere hitzaldian Ametzagaña taldeko enpresei eskerrak eman zizkien, bereziki Iametzta Interaktiboari, eurak gabe ARGIA ez litzatekeelako gauza bera izango.

Gainontzeko arloetako irabazleak hauek izan dira:

- ✓ Webgunerik ikusgarriena: Botasarean.biz.
- ✓ Erabilgarriena: Sidrerias.ws.
- ✓ Dibertigarriena: Baserrieskolak.com.
- ✓ Erabilerrazena: Lotura.com.
- ✓ Webguneen berrikuntzaren arloko saria: Paseosvirtuales.com.
- ✓ Merkataritza elektronikoaren arloko webgunerik onena: Akaridesign.net.
- ✓ Herriarentzako zerbitzuen arloko webgunerik onena: Arreglamicalle.com.

Buber Sarien seigarren edizioa Internet&Euskadi elkarteak antolatu du. Abenduaren 9a arte edonork bozkatu ahal izan ditu bere webgunerik gustukoena. Ondoren hamar lagunek osatutako epaimahaiak maila bakoitzeko bost finalisten artean irabazlea aukeratu du.

Carlos Santamaria koreografo donostiarrak irabazi du Espainiako Kultura Ministerioak ematen duen Dantza Sari Nazionala. Sorkuntza arloko saria jaso du Santamariak, eta interpretazio arlokoa Javier Baron sevilarrak irabazi du. Dantza klasikoa zabaldu eta kontserbatzeko egindako lanagatik eman diote saria koreografo donostiarrari.

Sagarroi taldeak *Mockbatik Moskura* birari ekin zion hilaren 12an, Moskun, Errusiako hiriburuan. Hiri horretan hiru kontzertu eskainiko ditu, eta birari Irungo Mosku auzoko Kabigorri Ateneoan emango dio amaiera, larunbat honetan. Bestalde, 2009ko udaberrian disko berria kaleratuko du Sagarroik.



Ortzai Antzerki Laborategiak eta Euskal Antzerki eta Dantza Konpainiak *Miren Ponppis* obra estreinatuko dute hilaren 22an Gasteizko Araba Aretoan (Dendaraba). Musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun berria hilaren 29an eta 30ean ere eskainiko dute areto horretan, eta 26an Murgiako Los Paules ikastetxean.

Fernando Amarika artistaren (Gasteiz, 1866-1956) margolanak daude ikusgai Arabako Arte Ederren museoan.



● **Marko Txopiteak Bertsolaritza askea; gaurkoa, atzoko, betikoa** artikulua idatzi du **Gaur8** aldizkarian: «Bertsolaritza, beste musika mota batzuk ez bezala, etekin ekonomikoen gupil zoroarengandik urrun mantendu da eta horrek, zorionez, bere jatorrizko izaera mantentzea ekarri du (...) Bestelako musikari askok egiten duten bezala bertsolariak ere egile eskubideak ustiatzen hasiko balira, arazo dezente sortuko liriteke (...) Web 2.0 delakoaren garaian gaudela kontutan izanda, pare bat gauza faltan botatzen ditut nik. Adibidez, grabatutako audio eta bideoak *podcast* formatuan eskaintzea. Oso aldaketa txikia da eta edukiak gehiago zabaltzea laguntzen du. Eta eduki gehiegi biltzen bada, webgune batetan informazio guztia eskaini beharrean P2P sareak erabil daitezke, bertsozaleek edukiak zabaltzen lagun dezaten (...) Bertsolaritzaren

izaera aske hori sendotzeko, lau haizetara harro aldarrikatzeko, webgune hauek copyright murriztailea albo batera utzi eta lizentzia aske bat erabili beharko lukete (...) Ea Bertsozale Elkarteak gai hau aztertzen hasten den...».

● **Aingeru Epaltza idazleak Berrian:** «Aspaldian idatzi ditudan liburuak itzultzen ari direnez, gehiagotan gertatu zait pentsatzea hau nola ulertuko du kataluniar, frantziar, espainiar batek? Baina, gogoan, lehenbiziko irakurleak izaten ditut: euskaldunak. Hala ere, irudipena daukat, beste hizkuntzetan irakurtzen nautenak gehiago etortzen zaizkidala esker ona adieraztera (...) Idazlea izateko ez da horretatik bizi behar. Beste lan bat izan eta jendearekin egoteak istorioak ematen ditu. Azkenean istorio lapurrak gara...».

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Trenarenak, eta bestelako burdinbideak

La Bête humaine. Émile Zola, 1890.
Le livre de poche, 508 orrialde.

XIX. mendearen azken arnasetan idatzi zuen Émile Zolak *La Bête humaine* nobela, trena, Gisèle Séginger adituaren arabera, *topos* literario bihurtzekotan zenean. Ségingerrekin uste du, Flauberten gustuen kontra, Zolak mundu modernoaren ederra azpimarratu zuela istorio honetan. Burdinbideetako unibertsoa bihurtu zuela modernitatearen ispilu.

Egia da Jacques Lantier protagonistak, gidatzeaz gain, maite ere egiten duela lokomotorea; trenen deskribapen zehatzen atzean, halako fazinazio bat antzematen zaiola egileari; eta abar. Baina iruditzen zait Zolak ifrentzua ere erakutsi nahi izan zuela: hilketa itsuen, mendekuen, pasioen nobela iruditzen zait, aldatzen ari den mundu batena, baina ez derrigorrez, eta alor guztietan, hobera. Mundu berria gidatzen duen gizakiak piztia izaten jarraitzen du



—hortik titulua—, odol egarri da. Hil egiten du, natural ateratzen zaiolako.

Sexu indarkeriaz ala gerraz egiten ahal zaizkion irakurketak beste baterako utzita, nobelak garapenaz —uler bedi *progreso-progrès* adieran— ematen duen ikuspegi kritikoa nabarmenduko nuke. Liburua ixten duen irudia aski adierazgarria da: tren gidariak elkarrekin borrokan, makina abiadura bizian doa eta soldadu mozkor kantariz beteta, auskalo nora. Ez da mundu modernoaren erretratatzeko modurik politena nire ustez.

Dena dela, ez didazue esango hil honetako Azpeitiko hilketa ikusita, irudia erabilgarria ez denik. Soldadu ustezko batzuek trena ez, baina gizon errugabe baten bizitza gelditu dute.

Beraien burdinbidearen hurrengo geltokia non izango den ez dakigu, bai ordea ederki zikindu dutela bidea Zolarena bezalako ikuspegi kritikoa azaldu nahi duenarentzat. Eta, bitartean, gidariak elkarrekin borrokan jarraitzen dute, politikaren lokomotorean.

NEGUA 2009

Urtarrilak 3	KEN ZAZPI Musika • Victoria Eugenia Antzokia • 20:30
Urtarrilak 9-10	TERRAT PACK, El Terrat Antzerkia • Kursaal • 20:00
Urtarrilak 10-11	HNUY ILLA, Kukai - Tanttaka Dantza • Victoria Eugenia Antzokia • 20:00
Urtarrilak 17	CALEXICO + ARTISTA GONBIDATUA Musika • Victoria Eugenia Antzokia • 20:30
Urtarrilak 23-24	EL OTRO LADO, Gelo Film Antzerkia • Victoria Eugenia Antzokia • 20:00
Urtarrilak 30	RAFA RUEDA Musika • Imanol Lertxabal Antea (Lugaritz) • 21:00
Urtarrilak 30-31	PACO IBÁÑEZ Musika • Victoria Eugenia Antzokia • 20:00
Otsailak 13-15	AHUNTZA, NOR DEN SYLVIA?, Txalo Produksioak Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00
Otsailak 14	TERAPIA, Markelito Antzerkia • Gazteszena (Egia) • 20:00
Otsailak 27	SAIOA + JOSEBA IRAZOKI Musika • Imanol Lertxabal Antea (Lugaritz) • 21:00
Otsailak 28	PAPIRO...FLEXIA, Logela Multimedia & Circle of Trust Dantza • Gazteszena (Egia) • 20:00
Martxoak 14-15	URTAÍN, Animalario + Centro Dramático Nacional Antzerkia • Victoria Eugenia Antzoki • 20:00